Dominica 2.ª de Quaresma.

Asumpsit Jesus Petrum et Jacobum, et Joannem, et duxit eos in montem excelsum seorsum, et transfiguratus est ante eos. S.n Matheogaan.

Gaur esatendeuscu Evangelioac, nere fielac, Jesu Christoc eroan cituzala irn bere discipulubetati, Pedro, Juan, eta Diego, mendi batera, izanzana Tabor, S.n Geronimoridanez; eta an euren presencian transfiguradu zan, ucda, eguin eben, manifestadu ecin bere gorputz sacratissimoan gloria andi aren parteren bat, gocetan ebena leenengo instanteti bere anima bedeincatissimoan. Prometidu eben aren Magestadeac, advertietanda vena leguez Liraac, eta S.n Leon Aita Santubac, ecusico eubela bereetati batzuc gloriaco resplandoreaguin ill baño leenago, eta eroan cituban Taborera cumplietaco verbia; bada Jaincoen errepublican iñoz etzirian asarratu birtutea, eta eguia.

Transfiguradu zan Jauna, eta alaco moduban ecē, bere arpegui divinoac argui eguiten eben Eguzquiac leguez, bere animaco arguieen indarrez, joten eubenac bere gorputeco cristal purissimoan, eta bere soñecoac competietan euben zurrtasunean edurraz, eta oraindino aro gueiago. O animac eta cē gloriac ichaiten deuscun.

Aguertu cirian an Moyses eta Elias, prosequietandau Evangelioac, eta jarri cirian berbetan Jesu Christo gure Jaunagaz. Egocen opinino erratubac, dio S.n Juan Chrisostomoc, ete zan Elias aren Magestedea, edo Profetetati bat, eta datos dio S.n Efrenec tertificatceco eztala Elias, ezpada Eliasen Jauna; edo Datoz Moyses illic, eta Elias vicirric, dio S.n Bicente Ferrerec publiquetaco dala bicien eta illen Juez.

Verva eguin eubena, Sn Lucasi danez izan zan Salvadoriaen pa
sinoen eta eriotzien gañean. Jesu Christoren eriotzien gañean
verba eguiten daube, esaten daubela gloriosoa! Bai, nere fielac,
eta dirracaide chit ederra. Acordadu bedi guizona eriotzeaz, aguer
tzen damian gloria mundanoaquin, honrraquin, eta dignidadeaqn
cegaiti da duda baga medioric poderosoena desprecietaco, eta evaqui
tzeco apetitoac.

Sn Pedro beteric arguiezen etorrera ain andiaz, pretendi
du eben eguitea iru tabernaculo, edo echechoac gozetaco: baña erra
tubena artan, esan eutzan gure Redemptoreac; cegaiti ezin egon
deitegue perpetuaco gloriaric vici onetan. Ynstante artan
odei chit argui batec, eta Aita eternoaren voz batec esaot
zi eutzan Pedrori proseguidu eguian. Ezta beste gauzaric
Jaincoac bialquetan daben tribulacioa, edo trabajuba, boz bat
baño, emotendeutzana benignamente Christinadubari, jauri
eztein. Au da nire seme maitea, esan eben vozac, entzun
eguiozube, eta obedecidu eguiozube. Entzun eguiozube, dio, ez
Demoniñoari, ez mundubari, ezta Araguiari, ezpada datorre
nari vicia emotera zubeecgaiti. Entzutera voza, jauri ciri
an Apostolubac bildunturic. o Jainco Santuba! Cer izangodā
juicioco egunean, au izagoten bada gloriaco mendian? En fin,
animaduric Maisu soberanoagaiti, jagui ciriaen, eta ecusi euben
bacarric Jesus. Ce eguia! Jesus da bacarric faltetan eztaben
adisquidea. Jatsi zan menditi, eta encargadu eusten ecusi euben
gustien secretoa; Ecusiditube Gloriac, eta oneec eztira esaten
vici mortalean; Baiña ezteuste aguinquetan, isilic eugui da
guien entzun daubena; cegaiti eugui bear eztira isilic merato
ac, ceintzuguin entzun euben logretandala bienaventuranza.

Au da, nere fielac, Evangelioco letria, gustia reduciduric,
entzun dozuben leguez, manifestetana guri Jaunen Transfigu

racinoa, cein dan, Interprete Sagradaben Sentiera comunagan, gloriaren demesarra. Bidorquira propomitu neiquian bere grande zac, modietaco zubeer dereatceera, baiña daucat convenientea gotraat ichitea orain puntu au, eta cangitetea berte bater Conu deracanoc: Guztioc daquic, ipoteco mendi baten puntara, dala precito jatea trabajubar, vencietan dabela queldi queldi bere laz tatuna; Ecuri equirube, bada, emen, cer beardan elteeco Gloria co mendien altueraxa; da precito jotea aldatz gora, cegaiti dá precito vencietea Jaunen graciar lartarun andia, dacandena eu xaquin viceo miseria aroc: orregaiti izango da nire asunto gurtia manifertetea zubei, logretaco gloria eternoa dala precito bear equitea, viciacdiraubar artean, eta ala ere izangodala chit laburra edocein neque meracietaco.

*Assumpsit Jesus Petrum et Jacobum &c.*

Ez bein, espada arotan entzundozube, Nere fielac, ezin eldoleitequeala Ceruna, viciten eztala crucificaduric mundu baz, pasinoaquin, eta apetitoaquin, au da dudaric eztaucan equi bat, eta ain repetiduba libura Sagradubetan. Bacarric reina dudaique Christogaz dio Sn Pabloc, sufrietan dabenac, eta pade cietan dabenac iguatquiro Jesu Christogaiti. Jarraitucio deutza nac bere Maisu divinoari, dio Sn Lucasec, da precito ucatu bein berbera, eta eroan daguian bere Cruecea. Ezin izandeteque coronaduba Gloriaz, dio Santiago Apost. jaquin dabenac espada sufrietan viciro pena lidadeac, eta molestiac, Au da moduba, uretan daubenaletra divinoac instantean bein: Bidezquiro, nere entzulac, eztago Ceruric: ezta posible ipotea Gloriaco mendi dichosora, bearra Equiten dala espada, eta padecietan dala aro. Ez equirube

extranatu, cegaiti Jesu Christoc sarteco Gloria celestialagar, izan bazan convenienteza edo necesarioa, padecidu eguian aimberte, gurtiac daguigun leguez padecidu ebela, eta izango chit justo, preciçetan gaianoc izatez bere discipulubac, padecidu daigun, igualguiro vici miserable onetan, sarraiquetan dituguzla Maiu ain orren oñachac, bere lagunac izateco bienaventuranza eternoan? Desengañadu gaitecen, ecę miembroac conformadu bear dira buruba; eta Jesus guze Redemptorea izigui eucun ezquero ceruba pena infinitoen costaza, da chit razonable, gue ere sarraitu daigun bere exempluba, guze indarrac permitietan daubenerano.

Eguiaz, entzule catolicoa, ario padecietan dala ere, ez jacu eguingo favore arto? Cer dira vicico pena, eta aflicino gurtiac, comparadurie eternidadear? Entzun eguiozube S.n Pablori, eta exacutrico deutzube; cegaiti Apostolu onec dijuana, eta dempoien circunstancia, ceñetan eran eben, da ondo notablea.

Predicadu eusten Evangelioa Nacinoai, anuncietan eustela Jesu Christoren izena: bere predicacino apostolicoetan, ó cembat sufridu eban Jaincoagaiti! cé vigiliac, eta izerdiac! noc ponderatu daigue padecidu citubam peligrubac lurrean eta ichasoan, ciudadetan eta desiertubetan? Nun señaladu etzan bere ardaniar, eta predicacino frecuenteagaiti Principeai, eta Puebloai. andiai, eta chiquichoai. bere egunerco persecucinoagaiti cer sufridu ez eben? acusacinoagaiti Juecen aurrean, cer sonidu ez eben? afrentagaiti plaza publicoetan cer recibidu ez eben? Catedgaiti prisinoetan, golpeagaiti, eta tratamenturic indignoenagaiti cer sufridu ez eben?

Gueitu eguiozube oni aimberte virtute, nola practicadu citubam eta practiquetancitubam egunero. Cé amodioa Jaincoazena! cé aborrecimentuba ber berena! Cé desprecioa sensible guz

guztiena! Ce pobreza, ez bacarric ciottecoa eta espiritucoa, ezpa da pobreza corporala, eta esquarcoa! Ce castiguba beze gor putzena! Ce abstinenciac, eta baru ain rigurosoac! Ce oraci no ain sarriac! Ce suplica ain ferborosoac! Egon zan iñoz gui zonic, juntaducbeenic aimberte merecimentu, eta esperada eique ainic cosecha abundanteagoa, eta cerba eguin confienza quei agogaz? Advertidu eguizube bada orain cer dijuan. Nire obra guztiac, mortificacino guztiac, nire vicico trabaju guztiac ezin sartu ditergue comparacinoan, esperetandodan bienaventuranzagaz. Au zan Apostolu Santuben juicioa, eta emotendan razoia, cegai ti sufritu eta padeciettan dogun guztia vician, dan momentucoa, facila, eta izdiorra; baña ichaiten deuscun premioa da aundia ber beragan, eta eternoa duracinoan.

O nola esautu euben egui au Patria eternoco morado reac, Santubac diot, recibidu daubenac ia euren trabajuben coroia gloria celestialagan. Cer eguin es euben, cer padecidu ez euben izabarteagaiti Cerubetaco erreinuba? Lenengo lecuban izan cirian legue divinoen obserbadore exactissimoac; da era tea resistidu citubela tentacino guztiac, andiac izanagaiti, pre servadu ciriala pecatu eguiteti ocasinoric peligrosoenetan, suje tadu citubela euren pasinoric dominantienac; eta euqui gubela sensualidadea sujeta beti, beardan leguez razoiari, eta legue divinoari. Practicaduenbela Penitencia, paciencia, eta Cari dadea, consoladu citubela pobreac, amadu eubela proximoa, parcatu eustela euren enemigoai, Verba baten, cumplidu eubela legue divinoen obligacino general guztiaquin eta particularaquin, ya obra onen exercicioan, ya negocio humanoen cuidaduban, ya euren echeco gobernuban, ya Jain coari bequirzaquetan eutzan guztiagan, eurai berai toquetan

satenagan, eta beste gustian

Pensetan dozube, nire entzulec, opresaz eguin eubela San tubac, bear euben baño gueiago, ifiniac izateco siervo fideleen graduban, eta recibietaco familiaco Jaun aregagandi bere salvaci noen dichia? Bada consultetan badituzube, eta sinisquetan badeustezube Santubai eurai, erantzuten deutzube, izan zirala siervo inutilac, ezer espatela sor, bacarric contetan eubela Jaunen misericordiaz.

Geraitu eguiozube om; eco Santubac etziriar conten tadu mandamentuben observanciaz, espada ere procuradu eu ben juntetea ere consegu divinoen frutuba. Yzago zaitece espi rituban Egiptoco desiertubetara; consideradu eguizube Tebaidaco solitario famatu aec; jarraitu eguiezube acheen cuevetaraño: dira guizonac, edo dira Aingueruba? beti baru eguin, beti oracio eguiten; beti meditadu, beti egon privatubac gustiti.

Bada cer esango dogu Eliza Militantien combatiente aic gaiti. Martiri Santubac? Cé crueldadeac pensadu etzituban Tira noen barbaridadeac atormentetaco! Baiña itanguetan dot, bildur tu eguin aitituben? Ecoaten cituben tormentura, josten cituben crucetan, sartcen cituben olijo iraquinetan; baña cruceen gañe an olijoen gañean cén entzuten zan euren aoetati alegriaco Canticoac espada. Sn Esteban batec, seusi zamian arrisco tem pestade baten erdian, pensetan eben gueiagogan oracio eguiten baño bere enemigoacti. Sn Andresec lastan eguiten eutzan Cru ceari, bere deseoen cumplimentuba leguez. Sn Lorenzoc adver tietan eusten verdugubai, garrac erreeubela bere gorputcen alde bat, eta convidetan cituban, baelta eguin eguiñen beste alde ra; bada ez euben sentietan penaric euren tormentubai gaiti, espada sentietan euben eurac gan gusto ta suavidade esan

erin leguian bat, dedan eguin, eta esaleraño S.n Agustinec leguez berte dempora baten: Hic ure, hic seca, hic non parcas ut in eternum parcas: ezpei parcatu emen, Jauna, gorputz mise rable eta galtor orretan, medio onegaiti parcatu badai gure miseriac, eta eguin.n baguai berezorren gloria celestialon par ticipanteac.

Ecusi eguizube, nire fielac, ce concepto baxuba formetan euben Santubac munduco trabaju guztiena, comparaduric ceruco recompensiagaz. Pena guztiac, castigubac, afliccinoac, eta mar tirioac ezeren ain suaveac, eta ariñac, ecē ez euquen euren esti macioan bapere lecuric.

Pensadu daiguan bada orain gure iracaderaco, guizo nac ciriala Santubac gu leguez; bacirian ere gubano inocen teagoac, mortificadubagoac, eta ferborosoagoac; bada guizon oneic, purificadubac izanic Jaincoen servicioan, crucificaduric egon ezquero mundubaz, bota ezquero euren odol propioa, per setan beuben etziriala dignoac, recibidubac izateco Ceruban: gu lau avemaria gargui errezadubac gaiti, piedadeco obraren bat naguitasunaz practicadubagaiti, azquenez, gue vici epel ba ten ostean, fundadu daiquegu derechoa gloria eterno guztira, eta bienaventuraduben felizidade guztira? Cē locarana!

Nire fielac, Christianismoen leguecac beti izan dira, dira, eta izango dira euracc; eztago euracgan personen aceptacinoric, eta berbera aguinguetan deutzo Jesu Christoc batari, ceín berte ari. Ikdesquino, Santubac, cerubar sarteco, eguin beuben ain berte, eta oraindio ezeten guchi, gue ere sarraitu bear dita gu euren pausoac, gura badogu izan felizac eternamente eurac leguez.

Eguia da, obligadu ciriala exercicio particular

batzubetara,
proponietan ez tituba.  Evangelioac preceptotzat; baña exerci
cio particular oneen auxilioaquin ez euben intentadu gueiago, eltceia
baño seguridade gueiagogaz Jaincoen leguien observanciara: orregai
ti renunciadu euben matrimonioen lazo sagraduba, facilitetaco
gueiago, ta gueiago pureza ta castidadea, aguinduba generalmen
te fiel guztiai: orregaiti sujetadu ciriain silencio riguroso baten
leguetara, evitetaco seguridade gueiagogaz vanidadeen conversaci
noac, alperqueriena, malicien, eta disolucinoen, prohibituac
Christinau guztiai, eta diriana ain comunac munduban: orregai
ti renunciadu cituben guztiz munduco ondasunac, eta esperanzac, eltceco
facilidade gueiagogaz espirituco pobrezara, eta gauza galcorren des
precioza, aguinquetan jauna guztioi Evangelioan: onegaiti santu
ciriain retiro severo baten barruban, alde eguiteco betiro mundu
co placere eta pompetati, ceñen renuncia guztioc eguin dogu
Bautismo sagraduban: onegaiti artu cituben baruba, vigiliac, eta
beste mortificacioac, bezauteco araqui bat, obligadurie gagocena
guztioc crucificatecera beti, eta eguiteco echeco legue bat leguez pe
nitencia, aguinquetan deustena guztioi Evangelioac, legue indis
pensablea leguez.

Au izan zan euren idea, proponietea conseguben prac
ticar socorru batzuc, cumplietaco facilidade gueiagogaz leguien
obligacioac, bada guztioc daquigun leguez, ezta severidade evan
gelicoa batzubendaco, eta Yndulgencia besteendaco, cegaiti, eracus
ten dabena leguez Sn Pabloc Apostolubac, eztago diferenciaric Jude
guben, ezta gentilen, Principien edo vasalloen, conteranoen ezta
solitarioen; onetan consistietandau gure religino sagraduben uni
formidadeac, eta au da precizo obserwadu daigun bere austeridade
guztiaz, obserwadu eubena leguez santubac, guzabalogu igo euroc
leguez gloriaco mendi santura.

Esan eguidazube, bada, orain: da por ventura ceuben

vicia Semejantea. Santuben viciani? Sarritan Jaincoen Minis
troac perrsuaditcen deutse animai, bearra eguin daguiela irabasteco
ceruba, Santubac eguin eubena legues: onetaraco eguin daguiela
euren apetituen biolencia, contenidu daguiela euren pasinoac, su
jetadu ditecela eguñero virtutezco exercicio batzubetara. baña
cē impedimentubac! ce dificultadeac topetan eztitube!

Ay nere fielac! Jaincoari servidu jaco reserva bagaric.
ecē onela servidu eutcen Santubac, eta onela servietan eztentza
nac, ezbei pensadu eguitea parte euraquin. Cabietan da Cris
tinaduben artean, beguinatu dedilla aimberte indiferenciaz ne
gocio ain andi bat, nola salvacino eternoena?

Berte Cuidadudu guztiac, ceruen eternoena ezpada, dira
profanoac, impuroac, eta despreciableac: eztira gueiago inquie
tude baño batzuc baño, eta cari beti pecaminosoac: bacarric san
tificadu diteque, unidunic daucenian salvacio eternoen cuida
dubaquin; eta ala ora eguin deilla ain caru guchi! Da posible ō Pe
cataria, euquidaguizula estimacio ain guchigar arguenoco fina, ceñe
taraco criadu cinduban Jaincoac? Jaincoac emon eutzun daucazun viza
tea, servietan deutzazula vici onetan, gozadu daguizun eter
nidadeacgaiti, bertean: Cegaiti, bada, servietan eztentzazu zeure
biotz guztiti? Cer amatcen dau, amatcen eztabenac ontasun au?
Ceren bildur da, Magestade onen bildur eztana? Nori servietan
deutzo, servietan eztentzanac Jaun oni?

Ea, catolicoac, idiqui eguizube beguiac, ezautceco zuben
engañuba: quelditu zare ya enteradunic, iyoteco gloriaco men
dira, dala precisu jatea aldaz gora, eta trabaju asco en costura;
quelditu zare ia instruidunic practicamente santuben exemplu
baquin, asco padecidute ere, eguingo jacula gracia andia, emoten
bienaventuranza eternoa. cer queldiquetan da, bada, deren

garuben viztan? artia baño vici barri bat,, sarraiquetandala
aimbeste penitenteen exempluba, izateco euren baguruac cezubar?
Auda, nire fielac, falta dana: animoa, bada, obrar ĝirfinteco.
Eztar razoe andia, bearra eguindaigun santubac leguez logaeta
co gloria hâ, eta gloria eternoa, ceñetaraco izanguiniar criá
dubac? Nox, bada, animetan eta, oraindi, bere biotz gustiti?
Gurtioc renunciadu dogu munduba, eta bere gurtoac Bautismo
Sagraduban; gurtioc renunciadu dogu aragria, obliguetan
ganiala, ez vici izateza, bere desco corrampitubaquin conforme,
ezpada castigatceza, berautera, eta crucificatceza; gurtioc re
nunciadu dogu Satanas, eta bere obrac, auda pompac, diver
sinoac, eta Jesu Christozena eztan guztia. Nox, bada, cumbli
tu gura ertitu promesa ain solemne onecc? Cumplietan badi
tugu, arequretan dogu gloria eternoa; bertela galteen gara
betico.

Ea, pecatari, Cerucaco criaduba izan ziniar, eta onec
izan beardau zure atencino gurtia. Oraingaino billata eta
serwidu deutrazu Demonioari, ichi zaniala eroaten gurto ville
tati, deleite, eta diversinoetati. billatu eguizu gaurco eguneti
zure Jaincoa, amadu eguizu zure Jaincoa, honradu eta
glorificadu eguizu zure Jaincoa; auda bide bacarra Ce
ruraco: eztago, eggon bere ezin deitegue besteric. onegaiti ibi
li ziriar Santubac, eta onegaiti ibilico zara zu, salvadu gu
ra bazara eurac leguez. Bada cer eguiten dozu? Negar
eguizu zure gaiqui eguinac, eta confesinoz beteric escatu
eguiozu zure Jaincoari, publicano famatu ac leguez, gurtien
parcacinoa: Deus propitius esto mihi pecatori: Nire Jaincoa, eu
qui bequi piedadea pecatari onegaz. Misericordia Jauna, ceña
prenda seguruba gloriena Amen



FUNDACION
SANCHO EL SABIO
FUNDAZIOA

MAN 660